


## Nola gauzatu bananaren aromaren sintesia ?


### 1. Hastapeneko nahastea

- Saiodi batean isur dezagun : 5 mL azido azetiko, 5 mL alkohol isoamiliko eta zenbait tanta azido sulfuriko.
- Saiodia hets dezagun, 30 cm luze den hodi mehe bat duen tapaki batez.




### 2. Sintesiaren gauzatzea

- Saiodia maria-bainuan ezar dezagun, 50 °C-tan.
- Saiodia 15 minutuz atxiki dezagun maria-bainuan.



### 3. Produktuaren « ateratzea »

- Saiodia ur gazi saturatua duen ontzi batean isur dezagun. Nahas dezagun.
- Ontzia dekantazio-antula batean huts dezagun, eta lortzen den produktua eskura dezagun.



### Beha

1. Zer dauka saiodiak hastapenean (1. irudia) ? Zer itxura du ?
2. Zer fruituri pentsarazten zaitu saiodiaren usainak (2. irudia) ?
3. Non aurkitzen da produktu usaintsua ur gazian isuri ondoan (3. irudia) ? Zer itxura du ?

### Informazioak aztertu

4. Zer behaketek erakusten dute eraldaketa kimiko bat gertatu dela ?
5. Zergatik behar da eratzen den produktua « atera » ?
6. Zein dira eraldaketa honetako errektiboak ? Eta produktua ?

### Ondoriozta

7. Ondorioa idatz, galdera honi erantzunez : “Nola gauzatu bananaren aromaren sintesia ?”

### Kasu

- Sintesia espezie kimiko bat lortzea ahalbidetzen duen eraldaketa kimikoa da.
- Azido sulfurikoa ez da errektibo bat ; eraldaketa kimikoa fiteago egitea ahalbidetzen du.
- Airezko hoztailearen bidez produktuak ateratzea saihesten da.

### Nola ekoiztu salboina ?


#### 1. Hastapeneko nahastea

- Erlenmeyer batean isur dezagun : 20 mL oliba-olio, 30 mL sosa biziki kontzentratu eta 40 mL alkohol 90°-koa. Nahas dezagun, nahastea homogeneoa izan arte.
- Ontzia hets dezagun, airezko hoztaile batez.




#### 2. Sintesiaren gauzatzea

- Erlenmeyerra maria-bainuan ezar dezagun, 50 °C-tan.
- Saiodia 30 minutuz atxik dazagun maria-bainuan, erregularlari nahasiz.



#### 3. Salboinaren «ateratzea»

- Ontzia ur gazi saturatua duen ontzi batean isur dezagun.
- Iragaz dezagun.
- Filtroan gelditzen den produktua bil dezagun.



#### Beha

1. Zer dauka erlenmeyerrak hastapenean (1. irudia) ? Zer itxura du ?
2. Zer itxura du erlenmeyerrak (2. irudia) ?
3. Non aurkitzen da salboina ur gazian isuri ondoan (3. irudia) ? Zer itxura du ?

#### Informazioak aztertu

4. Saboina ur gazian disolbagarria da ?
5. Zer behaketak erakusten du eraldaketa kimiko bat gertatu dela ?
6. Zein dira eraldaketa honetako erreaktiboak ? Eta produktu nagusia ?

#### Ondoriozta

7. Ondorioa idatz, galdera honi erantzunez : “Nola ekoiztu salboina ?”

#### Laguntza

- 90 °-ko alkohola ez da erreaktibo bat : disolbatzailearen funtzioa du.
- Kasu sosa kaustikoaren erabilpenari : betaurrekoak eta eskularruak beharrezkoak dira.
- Lortu produktua ez da garbia. Ez da erabili behar.

## Nola ekoiztu nylona ?


### 1. Erreaktiboen prestaketa

- Becher batean, isur dezagun hexanoan diluitu 5 mL sebasoile kloruro.
- Beste becher batean, isur dezagun 5 mL hexanodiamino.




### 2. Erreaktiboen elkartzea

- Sebasoile kloruroa duen becherra izotzean sar dezagun.
- Hexanodiamino emeki emeki becherean isur dezagun.



### 3. Produktuaren biltzea

- Bi likidoen arteko bereizketa-azalaren ondoan sortzen den "oihala" krako tipi batez tira dezagun.
- Zuntz zuria beirazko makilatxoan ingura dezagun.



### Beha

1. Zer daukate bi becherrek hastapenean (1. irudia) ?
2. Zer dauka izotzean ezarri becherrak hastapenean (2. irudia) ? Zer isurtzen da becher horretan ?
3. Non aurkitzen da eratzen den produktua (3. irudia) ? Zer itxura du ?
4. Non aurkitzen da produktua bildu ondoan (3. irudia) ? Zer itxura du ?

### Informazioak aztertu

5. Zer behaketak erakusten du eraldaketa kimiko bat gertatu dela ?
6. Zein dira eraldaketa horretako erreaktiboak ? Zein da eraldaketa horretako produktu nagusia ?

### Ondoriozta

7. Ondorioa idatz, galdera honi erantzunez : "Nola ekoiztu nylona?"

### Laguntza


- Kasu sebasoile kloruroaren erabilpenari : betaurrekoak eta eskularruak beharrezkoak dira.
- Ziliportak gerta daitezke erreaktiboak kontaktuan ezartzean : izotzari esker ziliporta horiek saihesta daitezke.

## Nahaste baten aroma “ateratzea”

1. jardueran, bananaren aroma beste osagai kimiko batzuekin nahasia lortzen da. “Atera” daiteke, produktu ahal bezain garbia lortzeko.



### Nola egin ?




#### 1. “Relargage”

- Ur gazi saturatu disoluzio bat baso batean presta.
- Saiodiko produktua (hoztua) ur gazian isuri.

#### 2. Dekantazio-anpulan sartu

- Erlenmeyer garbi eta idor bat ezar dekantazio-anpulan azpian.
- Basoaren edukia dekantazio-anpulan isur.



#### 3. Dekantazioa


- Nahastea pausatzerantz utz.
- Bi faseak beha ditzagun : gainekoak aroma dauka, azpikoak ur gazia.

#### 4. Aromaren biltzea


- Ur gazia baso batetara isur.
- Aroma erlenmeyer garbi eta idor batetara isur.

## Marrazkien bidez ikasten dut

### Quelques puissances



### Quelques puissances nominales



### Gaitasunak

- Azido klorhidrikoan dauden ioien ezagutze-testak egitea.
- Azido klorhidrikoa eta burdinaren arteko erreakzioaren produktuak nabarmentzea.
- Azido klorhidrikoa eta burdinaren arteko erreakzioaren bilana idaztea.